

**Jurdana Uriarte Lejarraga Bermeoko Udaleko IDAZKARI NAGUSIAREN****19/2019 TXOSTENA****Espediente tramitatzaileria:** Urigintza, obra eta ingurumen saila**Gaia:** Bermeoko eraikuntzako eta eraispeneko hõndakinen kudeaketari buruzko ordenantza**Espediente zenbakia:****Txostenaren oinarria:** Toki Erakundeen Izaera Nazionaleko Gaikuntzadun Funtzionarioen Araubide Juridikoa onartzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3.3.d.1 artikulua**Aurrekariak**

**Lehena.-** 2019ko otsailaren 5etik otsailaren 20ra arte kõntsulta publikoa egin da Bermeoko udaleko webgunean, konpondu nahi diren arazoak egokitasuna, helburua eta beste aukera erregulatzaileak azalduz.

**Bigarrena.-** 2019ko otsailaren 25ean Urigintza, obra eta ingurumen saileko teknikariak justifikatze memoria egin du, helburua, beharrezana zein egokitasuna justifikatzen, ez duela eragin ekonomikorik esaten eta adierazten 2019. urteko araudi plangintzan aurreikusita dagoela Ordenantza hau onartzea; eta ordenantza zirriborroa prestatu du.

**Oinarri juridikoak****1. Aplikagarria den araudia**

- Apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen (4.1.a, 22.2.d, 25, 49, 65.2, 70.2 artikulua)
- 1955eko ekainaren 17ko Dekretua, Toki erakundeen zerbitzuen araudia onartzen duena (23-29 artikulua)
- Apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, Toki erakundeen lege xedapenen Testu Bateratua onartzen duena. (56 artikulua)



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 - Faxa: 94 688 5010  
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoa egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E30001DC6100U108J2W5X0F6

**Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 12/03/2019  
CN=Isa.izenpe.com. ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 12/03/2019 10:35:40

**DOCUMENTO:** 20190121953**Data:** 12/03/2019**Erregistro unidaidea:**  
**Erregistro nagusia**

- Urriaren 1eko 39/2015 Administrazio Publikoen Administrazio Prozedimendu Erkidearen Legea (128,129 eta 133 artikulua)

- Otsailaren 1eko 105/2008 Errege Dekretua eraikuntza- eta eraispén-hondakinen ekoizpenari eta kudeaketari buruzko araubide juridikoa ezartzen duena.

- Ekainaren 26ko 112/2012 Dekretua eraikuntza- eta eraispén-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duena.

## 2. Azterketa juridikoa

### A) Oinarrizko kontzeptuak

Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen 7/1985 Legeak 4.1. a artikuluan eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 128.artikuluan aitortzen da udalek duten eskumena araudiak egiteko eta autoorganizaziorako. Hori horrela, Bermeoko Udalak bere eskumenen inguruan legeek ezarritakoa garatu dezake izaera orokorreko xedapen administratiboen bitartez, zeintzuk beti legea errespetatu behar duten.



Hori horrela, egoki eta beharrezko ikusten da Bermeoko eraikuntzako eta eraispéneko hondakinen kudeaketa arautzeko udal ordenantza landu, izapidetu eta onartzea. Izan ere, 112/2012 dekretuaren lehenengo azken xedapenaren arabera behartuta gaude obra txikietan sortutako eraikuntza-eta esleipén-hondakinen kudeaketa arautzera udal ordenantza baten bitartez, beti ere estatuko legedia eta dekretua bera errespetatuz.

Ordenantza onartzeko nahitaez 39/2015 Legearen 129.artikuluan ezartzen diren printzipioak errespetatu behar dira espediente guztian zehar, hau da, beharrezana, efikazia, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta efizientzia printzipioak.

Gainera, kuantifikatu eta balioetsi behar dira ordenantzaren eragin eta erreperkuzioak, baldin eta gastu eta sarrerak suposatzen baditu, bai gaur egun, bai



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 - Faxa: 94 688 5010  
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

 Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu. Kodea: 07E30001DC6100U108J2W5X0F6	<b>Sinadurea eta data</b> JURDANA URIARTE LEJARRAGA(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 12/03/2019 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337280, O=IZENPE S.A., C=ES - 12/03/2019 10:35:40	<b>DOCUMENTO: 20190121953</b> Data: 12/03/2019 Erregistro unidatea: Erregistro nagusia
		

etorkizunean. Hori guztia aurrekontuaren egonkortasuna eta finantza iraunkortasunaren printzipioak betetzeko.

## B) Jarraitu beharreko prozedura

39/2015 Legearen 49. eta 133. artikulua eta 7/1985 Legearen 70. artikulua kontuan hartuta prozedura hurrengoa izan behar da:

a) Saileko teknikari arduradunak Bermeoko eraikuntzako eta eraispeneko hondakinen kudeaketari buruzko ordenantza onartzeko beharizana eta egokitasuna justifikatuko du.

Justifikazioa eginda dago.

b) Hala dagokionean, ordenantzaren proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da Bermeoko Udalaren webgunearen bitartez, eta jasoko da zer iritzi duten etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuek eta antolakunderik ordezkagarrienek puntu hauei buruz:

- ◆ Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.
- ◆ Arau hori onestea beharrezko eta egoki den
- ◆ Arauaren helburuak.
- ◆ Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak.

Izapide hori prozeduran burutu izan da.

c) Saileko teknikari arduradunak Bermeoko eraikuntzako eta eraispeneko hondakinen kudeaketari buruzko ordenantza onartzeko erabaki proposamena egingo du.



Erabaki proposamena egin behar da.

d) Kontuhartzaileak txostena egin beharko du kuantifikatzeko eta balioesteko ordenantzaren eragin eta erreperkuzioak, baldin eta gastu eta sarrerak suposatzen baditu, bai gaur egun, bai etorkizunean. Hori guztia aurrekontuaren egonkortasuna eta finantza iraunkortasunaren printzipioak betetzeko.

Urigintza, obra eta ingurumen teknikariaren arabera, kasu honetan ordenantza onartzeak ez du gastu edo sarrera gehigarri suposatuko, beraz, ez da beharrezkoa kontuhartzailearen txostena.



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 - Faxa: 94 688 5010  
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

 Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoa egiaztatu ahal dozu. Kodea: 07E30001DC6100U108J2W5X0F6	<b>Sinadurea eta data</b> JURDANA URIARTE LEJARRAGA(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 12/03/2019 CN=tsa.izenpe.com. ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 12/03/2019 10:35:40	<b>DOCUMENTO: 20190121953</b> Datea: 12/03/2019 Erregistro unidatea: Erregistro nagusia
		

e) Idazkari nagusiak txostena egin beharko du.

Behin idazkariaren aldeko txostena izanda hurrengo pausuak eman beharko dira.

f) Informazio batzordeak erabaki proposamenaren irizpena eman beharko du.

g) Osoko bilkuraren ordenantza hasieraz onartuko du, gehiengo soilez, 7/1985 Legearen 22.2.d eta 47. artikuluekin bat etorrituz.

h) Informazio publikoa eta entzunaldia gauzatu dira, interesdunek 30 eguneko epean erreklamazio edo iradokizunak aurkezteko. Hasierako onarpena webgunean, ediktuen taulan eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

i) Osoko Bilkurak aurkeztutako erreklamazio eta iradokizunak ebaztea eta behin betikoz ordenantza onartzea.

Hasierako onarpenean ezarri daiteke erreklamaziorik izan ezean Bermeoko eraikuntzako eta eraispeneko hondakinen kudeaketari buruzko ordenantza automatikoki behin betikoz onartuta egongo dela, baina horretarako arduradunaren txostenean oinarritutako idazkariaren ziurtagiria beharko da alegaziorik egon ez direla egiaztatuz.

j) Erabakia eta ordenantzaren testu osoa argitaratu beharko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Bermeoko Udaleko gardentasun atalean eta ediktuen taulan eta indarrean sartuko da BAO n argitaratu eta 15 egun igarota, 7/1985 Legearen 65.2 artikulua araberan.



### C) Ordenantza zirriborroaren edukia

112/2012 Dekretuaren lehenengo azken xedapenaren arabera, obra txikietan sortutako eraikuntza- eta eraispene-hondakinen kudeaketa arautzen duten udal-ordenantzak onartu beharko dituzte udalek, hargatik eragotzi gabe estatuko legedian eta dekretu honetan ezartzen dena. Udal-ordenantza horiek, hala dagokionean, udalerrri bakoitzaren egoeraren eta kasuistikaren arabera onar litezkeen mugak, tasak, fidantzak ere arautuko dituzte.

Ordenantza zirriborroak xedapen horretan adierazitakoa errespetatzen du. Hurrengo ekarpen bi gehitzea proposatzen da:



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 - Faxa: 94 688 5010  
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

 Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoa egiaztatzea ahal dozu. Kodea: 07E30001DC6100U108J2W5X0F6	<b>Sinadurea eta data</b> JURDANA URIARTE LEJARRAGA(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 12/03/2019 CN=Isa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 12/03/2019 10:35:40	DOCUMENTO: 20190121953 Data: 12/03/2019 Erregistro unidatea: Erregistro nagusia
		

- 7.4 artikuluan: Guzti hori 105/208 dekretuaren 12. artikuluan eta 112/2012 dekretuko 10.c artikuluan xedatutakoa betetzearen kalte barik.

- 15.1 Artikuluan: eskaera egoitza elektronikoan edo legeak baimendutako gainontzeko tokietan (BERAZen...) egingo da.

### Ondorioak

Ordenantza zirriborroaren edukia eta momentu honetara arte jarraitutako prozedura zuzena da, beharrezana, efikazia, proportzionaltasuna, gardentasuna eta efizientzia printzipioak errespetatu baitira.

Beraz, Bermeoko eraikuntzako eta eraispeneke hondakinen kudeaketari buruzko ordenantza proiektuari **aldeko txostena** egiten zaio.

Hori da nire ustea, zuzenbidean oinarritutako bestelako irizpideen kalterik gabe. Hori horrela, Osoko Bilkurak egoki deritzona erabakiko du.

*Oh. Orri oinean sinatzailea eta data*



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010  
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E30001DC6100U108J2W5X0F6

#### Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI  
NAGUSIA - 12/03/2019  
CN=Isa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 12/03/2019  
10:35:40

DOCUMENTO: 20190121853

Datea: 12/03/2019

Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia



